

Donostia Kirolak Jokoak programaren bigarren edizioa ospatuko du

*Uztailaren 19an, larunbata, hiriko hamar hiri gunetan ospatuko da,
tokiko 14 kirol erakunderen partaidetzarekin*

Hain mediatikoak ez diren kirol-diziplinak ikusarazteko eta herritarren artean horien praktika sustatzeko helburu estrategikoaren esparruan, Donostia Kirolak Jokoak programaren bigarren edizioa antolatu du, Donostiako kaleak gozamen kolektiborako kirol-agertoki bihurtzen dituen ekimena.

Programatutako jarduera guztiak doakoak eta irekiak izango dira, eta uztailaren 19an, larunbata, egingo dira hamar hiri gunetan: Zuluaga plaza, Boulevard, Egia, Urumea, Sagues, Nautiko, Ondarreta, Antiguako frontoia eta Zurriola eta Kontxako hondartzak.

Programak 20 kirol-modalitate baino gehiago biltzen ditu, hala nola atletismoa, arrauna, padel sup, piraguismoa, mahai-tenisa, badmintona, 3x3 saskibaloia, borroka-arteak, gimnasia erritmikoa, joko garbia, hockeya, waterpoloa, eskalada, hondartzako vóley-a, futvoley eta esgrima, egokitutako esgrima barne, eta hiriko 14 klub eta kirol-agenterekin lankidetzan garatu da.

"Herritarrek diziplina berriak deskubritzea eta hiria modu aktibo eta parte-hartzailean bizitzea nahi dugu. Jokoak klubek urte osoan egiten duten lana ezagutarazteko aukera bat da, "nabarmendu du Iñaki Gabarain Kirol zinegotziak.

Ekimenaren helburua da kirola publiko guztiei hurbiltzea eta tokiko kirol-ekosistemaren aberastasuna nabarmentzea, Donostiak hiri ireki, askotariko eta osasungarri gisa duen kirol-bokazioa indartzen duten esperientzia ludiko eta eskuragarrien bidez.

Kirol elkarte laguntzaileak:

CD Fortuna KE, CD Gimnasia Rítmica Donostia. Zubieta Pilota Elkartea, Judo Club San Sebastián, Gipuzkoako Badminton Federakuntza, Gipuzkoako Hockey Federakuntza, Donostia Kayak, Kairoscore, Donostia Arraun Lagunak, Ur-Kirolak, Futvoley Donostia, Donostia Urpelozaleak, Real Sociedad-Arteismoa eta
Gipuzkoa Basket Fundazioa.

PROGRAMA OSOA

1 GUNEA: SAGUES (GROS) - 10:00-19:00

- ESKRIMA & ESKRIMA EGOKITUA & MAHAI TENISA

- Laguntzailea: C.D. Fortuna K.E

Fortuna Kirol Elkartearen eskutik, esgrimaren hiru modalitate olinpikoetako bi erakutsiko dira: sablea eta espata.

Bi saio izango dira, bata goizean eta bestea arratsaldean (13:30etik 15:30era bitarteko etenaldi batekin), egitura berarekin: esgrimaren azalpenaren lehen zati bat, mugimenduen eta ekintzen erakustaldi bat eta erakustaldi borroka bat, lehiaketa olinpikoaren sistema elektronikorekin. Eta bigarren zati parte-hartzaileagoa. Parte hartu eta eskrima praktikatu ahal izango dute lau laguneko taldeetan (bi bikote). Gazteenek sablea egingo dute, eta helduek espata. Begiraleekin batera egongo dira une oro, mugimenduak azaltzeko eta arbitratzeko.

Egitura hori bera eskrima egokituarekin egingo da, gorpil-aulkiaren gainean.

CD Fortuna arduratuko da, halaber, mahai teniserako gunea dinamizatzeaz. Bi saiotan ere, goizez eta arratsaldez, kirolaren arauak azalduko dira, baita ping pong ezagunaren eta mahai tenisaren kirol olinpikoaren arteko aldea ere. Zati honetan entrenamenduko robotaren erakustaldia sartuko da.

Saio bakoitzaren bigarren zatian, doako txapelketa parte hartzaile bat izango da, binakako eta binakako partida mistoekin. Eta egunari amaiera emateko, jolas dibertigarri bat proposatzen da: Fortuna erruleta.

- BADMINTON-A

- Laguntzailea: Gipuzkoako Badminton Federakuntza

Gipuzkoako Badminton Federazioak kirol modalitate honetarako erreserbatutako espazioa antolatuko du Sagueseko zabalgunean, bi jokalarri profesionalen parte hartze bereziarekin.

10:30etik 12:00etara "Jolastu txapeldun gisa" jarduera egingo da, adin guztietarako erraketa jokoak, begiraleek eta kirolariek gidatuta. 12:00etatik 13:30era erakustaldi txiki bat egingo da.

Arratsaldeko saioa 14:30ean hasiko da erakustaldi partida desberdinekin, eta 16:30ean kirolari profesionalei puntu bat irabazteko erronkan parte hartu ahal

izango da. 17:00etan, goi mailako jokalarien esperientziei buruzko hitzaldi labur bat egingo da.

Jardunaldia amaitzeko, punteria eta trebetasun jokoak egingo dira erraketa eta bolantearekin, kirol materialaren zozketa egingo da eta autografoak sinatuko dira.

- HOCKEY-A
- Laguntzailea: Gipuzkoako Hockey Federakuntza

Gipuzkoako Hockey Federazioak hockey pista puzgarri bat jarriko du Sagueseko zelaigunean. Bertan, goizeko eta arratsaldeko saioetan, hainbat jarduera egingo dira, hockeyan hasteko jokoak, txapelketak, etab.

2 GUNEA: BOULEVARD - 16:00 – 20:00

- ARTE MARTZIALAK & KONTAKTU-KIROLAK

Judo | Kendo | Aikido | Kick boxing

- Laguntzailea: Judo Club San Sebastián

Judo Club San Sebastián elkarteak arte martzialen eta kontaktu-kirolen programa bat eskainiko du Boulevardrean jarritako tatami batean.

Lau modalitateetako bakoitzak (judoa, kendoa, aikidoa eta kick boxinga) 15 minutuko erakustaldia izango du lehenik, eta, ondoren, beste 15 minutu ikusleen parte-hartzeari irekita..

3 GUNEA: KONTXA PASEALEKUA (Andia kalea); 16:00 – 20:00

- GIMNASIA ERRITMIKOA
- Laguntzailea: CD Gimnasia Rítmica Donosti

Donostiako Gimnasia Erritmikoa klubak tapiz bat jarriko du Kontxako pasealekuko gunen horretan, hainbat jauzi, oreka eta akrobazia erakustaldi eskaintzeko, baita elementuekin ariketak egiteko ere (soka, uztaiak eta zintak). 19:00etatik aurrera parte hartu ahal izango da elementuekin ariketak eginez, klubeko begiraleek gidatuta.

4 GUNEA: NAUTICO: 9:30 – 14:00

- WATERPOLOA

- Laguntzailea: Donostiako Urpolozaleak kirol elkarte

Gune horretan, Nautikoaren ondoan, waterpoloarekin lotutako txapelketak, jokoak eta ariketak egin ahal izango dira, interesa duen edonork parte har dezan.

5 GUNEA: URUMEA - 10:30 - 14:00

- PADEL SUP & ARRAUNA & PIRAGUISMOA

• Laguntzaileak: Kairoscore & Ur-Kirolak & Donostia Kayak & Donostia Arraun lagunak

Jokoak elkarteak ur-kirolen programa bizia ere proposatzen du Urumea ibaian, Donostia Kayak, Kairoscore, Ur-Kirolak eta Donostia Arraun lagunak klubak laguntzarekin.

Jarduerak hainbat sarbide izango dituzte Urumea jarduera horiek egiteko. Kairoscore klubak jendearentzako ibilaldi irekia antolatu du Padel SUP tauletan, Koipe zenaren gune inguruko arrapatatik. Bestalde, Donostia Kayakek Txomineko pantalanean izango du topagunea. Bertan, oinarritzko teknikei, familiarizazio saioei eta piraguismo jokoei buruzko saioak emango ditu.

Arraunari dagokionez, Ur-Kirolak (Loiolako pantalana) eta Donostia Arraun lagunak (Txomineko pantalana) klubak izango dira kirol modalitate hori dinamizatzeko erakundeak, herritar guztiei irekitako hainbat jarduerarekin, arraunaren oinarritzko teknikak probatzeko helburuarekin.

6 GUNEA: ZURRIOLA HONDARTZA - 19:00 - 23:00

- HONDARTZA BOLEI & FUTBOLEI

- Laguntzaileak: C.D. Fortuna K.E., Futevolei Donostia

C.D. Fortuna arduratuko da hondartzako boleiko espazioa kudeatzeaz, eta Futevolei Donostia kluba arduratuko da futvoleyaz.

Ordutegia, bi kasuetan, modu berean antolatuko da: entrenamenduko ariketen erakustaldiaren lehen zatia, erakustaldiko partidak egongo diren bigarren zatia eta parte hartzeko jarduera irekien hirugarren zatia..

7 GUNEA: ALDERDI EDER - 17:30 – 19:30

- ATLETISMOA

Altuera jauzia / Abiadura lasterketak

- Laguntzailea: Real Sociedad - Atletismoa

Realeko atletismo atalak olinpismoaren errege kirolari eskainitako Alderdi Ederreko espazioa dinamizatuko du. Hurrei zuzendutako proposamena da. Hurbiltzen diren hurrek altuera jauziko modalitatea eta abiadura lasterketa desberdinak hobeto ezagutu eta gozatu ahal izango dituzte.

8 GUNEA – ANTIGUAKO FRONTOIA 11:00 – 14:00

- PILOTA – JOKO GARBI
- Laguntzailea: Zubietako Pilota Elkarteak

Zubietako pilota taldeak hainbat jardura eskainiko ditu Antiguako frontoian pilota modalitate ezberdinak ezagutu eta praktikatzeko, bereziki Zubietako frontoian egin ohi duten Joko Garbikoa.

9 GUNEA – ANTIGUAKO TUNELA – 10:00 – 18:00

- Eskalada
- laguntzailea: CD Fortuna KE

Fortuna kirol elkarteak bi gune antolatuko ditu Antiguako tunelaren eremu horretan, goizeko eta arratsaldeko saioetan (atsedenaldia 13:00etatik 15:00etara).

Ondarretako hondartzatik igotzen den horman eskalada egiteko hainbat bide jarriko dira, eta tuneleko paretatik, berriz, rapela egingo da pasealekuraino. Jardura horiek edonorentzat dira irekiak, eta monitore espezializatuek gidatuko dituzte.

10 GUNEA – BLAS DE OTERO PLAZA (EGIA): 10:00 – 20:00

- BASKET 3 X 3
- Laguntzailea: Gipuzkoa Basket Fundazioa

Gipuzkoa Basket Fundazioak, Blas de Otero Plazan, Tabakaleraren aurrean, 3x3 basket lehiaketak antolatuko ditu egun osoan zehar. Goizez eta 16:00ak arte gazteenen txanda izango da (2010 eta 2013 artean jaiotakoak). Arratsaldean 16 urtetik gorakoentzat izango dira txapelketak. Izen-ematea

d
o
a
k
o
a

d